

EUSKARA. Justizia administrazioak euskalduntzeko eskatu du beste behin erakunde euskaltzaleak

Justiziak euskaldunen hizkuntz eskubideak zapaltzen dituela dio EHEk

Gernikako Epaitegiari intsumisioa agertu dioten hiru euskaltzaleren atxiloketa salatu du

Asier Iturriagaetxebarria | GERNIKA

Justizia administrazioek euskaldunen hizkuntza eskubideak «zapaltzen» dituztela berretsi zuen atzo Euskal Herrian Euskaraz-ek (EHEk). Horren adibide gisa azken astean jazotako gertakari bi aipatu zituen Gabi Basañez EHEko kideak: Gernikako Epaitegiaren aurrean intsumisioa agertu diren hiru euskaltzaleren atxiloketa eta joan den ostegunean Baionan izandako epaiketaren Demoek jaso zuten tratua. «Sei urte daramatzagu justizia administrazioa euskalduna izateko eskatzen, baina arazoak bere hartan jarraitzen du oraindik», esan zuen Basañezek.

Gernikan egin zituen adierazpen horiek EHEko kideak, aston bertako epaitegiaren deklaraziora eraman dituelako Ertzaintzak Lea-Artibai eta Busturialdeko hiru euskaltzale. Bilatze eta atxilotze agindua zeukaten beste bi euskaltzaleren atzetik ere izan da asteon Polizia, baina ez ditu epailearen aurrera eraman gura izan. Herenegun arratsaldean, kontzentrazioa egin zuten EHEko kideek Gernikako Epaitegiaren aurrean, eta Ertzaintzak Koldo Rodriguez eta



GABI BASAÑEZ / ARGAZKI PRESS

EHEko kideek Busturialdeko eta Lea-Artibai eskualdeetako udal ordezkarien babesa jaso zuten atzo.

Koldo Gerrikagoitia identifikatu zituen, atxilotzeko falta ziren euskaltzale biak. Hala ere, alde egiten utzi zieten, eta atzoko agerraldian parte hartu zuten, Pernan Basterretxea lehenengo atxilotuarekin batera. «Etxera bila joan eta sendia arduratu ondoren, jendearen aurrean ez zi-

tuzten atxilotu gura izan», salatu zuen Basañezek.

Halaber, Basañezek azaldu zuen orain zazpi direla bilatze eta atxilotze agindua daukaten euskaltzaleak, asteon bertan lekeitiar biri Gernikako Epaitegiara joateko agindu dietelako eta ez direlako aurkeztu.

Orain urte bi inguru hasi zen EHE Gernikako Epaitegian euskaldunen hizkuntza eskubideak ez direla bermatzen salatzen. Epaitegiko langileen %80k ez daki euskaraz, eta dauden hiru epaileek ere ez. Basañezek gogoratu zuenez, 64.000 dira euskaraz jakin eta Gernikako Epai-

GABI BASAÑEZ

Euskal Herrian Euskaraz

«Sei urte daramatzagu Justizia administrazio euskalduna eskatzen, baina arazoak bere hartan dirau»

«Gernikako Epaitegiak 64.000 euskaldunen giza eta hizkuntza eskubideak zapaltzen ditu»

tegian bere hizkuntza ezin erabil dezaketenak. «Hori giza eskubideen eta hizkuntza eskubideak zapaltzea da», gaineratu zuen.

Udal ordezkarien babesa

Gernikako Epaitegiak euskalduna izan behar duela eta justizia administrazio osoaren euskalduntzea eskatzeko, mozioa onartu zuten orain urte bat inguru Lea-Artibai eta Busturialdeko udal batzuk. Atzoko agerraldian ere bertan izan ziren hainbat udal ordezkari, atxilotetak salatzeke eta EHEren eskaera babesteko.

Bestalde, asteon izandako euskaltzaleen atxilotetak salatzeko asmoz, kontzentrazioa deitu du gaurko Bermeoko Udalak. Egurdiko 12:00etan izango da, udaletxearen aurrean. Izan ere, atxilotuetako bat bermeotarra da: Karmele Beobide.

GARAPENA. Nazioarteko Sarearen amaiera topaketan hartuko dute parte

Garapenaren aldeko hezkuntzari buruzko 46 elkartetako adituak bilduko dira bihar Murgian

Luis Karlos Garcia | GASTEIZ

Garapena bermatuko duen hezkuntza aldarrikatzen duten Europa, Afrika, Amerika eta Asia-ko 46 elkartetako 90 aditu inguru bilduko dira bihartik datorren asteburura bitartean Murgian (Araba), Hegoa erakundeak koordinatutako biltzarrean. Bihar eguerdian inaugurapen ekitaldia egingo da Gasteizko Goiuri Jauregian.

Murgiako Garapenaren aldeko Hezkuntzarako eta Herri Heziketarako Nazioarteko Sarearen amaiera topaketa izango da; azken urtean argibideak Interneten bidez trukatu eta debateak tokian tokiko sareetan gizarteratu dituzte bertan bilduko direnek. Mundu osoko 60 elkar- te aritu dira lanean.

Hegoako kide Miguel Argi-

bairen arabera, topaketaren helburu nagusia da «mundu osoko hainbat tokitako hezkuntza jardueren analisi partekatuetan sakontzea». Ildo horretan, ekarriak eta eztabaidak sistematizatuko dira, eta hobekuntzarako alternatibak proposatuko.

Biltzarrak, osoko bilkurak aparte, lau tailer izango ditu: politikoa, kulturala, pedagogikoa eta sistematizatzailea.

Hezkuntzaren rola aztergai, osagai eraldatzailearen gisara

Nazioarteko Sarea Polygone kolektiboaren ekimena da; Hegoak kudeatzen du talde hori, Espainiako, Portugalgo eta Belgikako elkarte batzuekin batera. Polygonek aztergai izaten du hezkuntzak osagai eraldatzailearen gisara jokatu behar duen

rola Iparreko herrialdeetan eta Hegokoetan.

1996an hasi eta hiru urte geroago argitaratu zuen egitasmoarekin abiatu zen Polygone lanean. Bihar Murgian ekingo dion biltzarrak bigarren proiektu nagusiaren funtsa jarri behar-ko du.

Topaketaren izenburua da *Labirintotik atera ahal izateko hezkuntza mosaikoa*. Globalizazioak eta erregimen neolibera- lek gaur egungo munduan indarrean ezarritako egokieran, garapenaren aldeko hezkuntzak egin dezakeen eskaintzari buruzko gogoeta kolektiboa da biltzarraren jomugarik garrantzitsuenak. Iparraldeko herrialdeen garapenaren aldeko lankidetzari buruzko ereduaren azterketa ere saihestezinezko debata izango da.



Osakidetza
Servicio vasco de salud



2002ko ENPLEGU PUBLIKOAREN ESKAINTZA

Azaroaren 16an eta 17an Administrazio Languntzailerako eta Administrazio kategorien proba praktikoa egingo dira Sondikako lehengo Aireportuko Terminalan (Asua-Erletxes errepidea, Sondika-Bizkaia), Osakidetza deitutako hautaketa-prozesuaren barruan.

Banaketa daten, txanden, orduen eta abizenen arabera egingo da, honela:

ADMINISTRARI LANGUNTZAILEA: Data: 2002ko azaroaren 16a.

TXANDAREN ZK.	ORDUA	ABIZENAK
1	8.00	hasi TACÓN bukatuta VILLAR
2	8.30	hasi VILLAREJO bukatuta ZUZA eta hasi ABAD bukatuta ALUSTIZA
3	9.00	hasi ÁLVAREZ bukatuta AYALA
4	9.45	hasi AYARZAGUENA bukatuta CALVENTE
5	10.15	hasi CALVO bukatuta DE LA TORRE
6	10.45	hasi DE LAS CUEVAS bukatuta EZQUERRA
7	11.30	hasi EZQUERRO bukatuta GARCÍA LIMA
8	12.00	hasi GARCÍA LÓPEZ bukatuta GOROSTIZAGA
9	12.30	hasi GORRAIZ bukatuta JIMÉNEZ
10	15.00	hasi JIMENO bukatuta LLARENA
11	15.30	hasi LLEDO bukatuta MENTXAKA
12	16.00	hasi MERCADER bukatuta ORTIGOSA
13	16.45	hasi ORTIZ bukatuta PREZ
14	17.15	hasi PRIETO bukatuta SÁENZ
15	17.45	hasi SÁEZ bukatuta SUSUNAGA

ADMINISTRARIA: Data: 2002ko azaroaren 17a.

TXANDAREN ZK.	ORDUA	ABIZENAK
1	8.00	hasi TAMAYO bukatuta ZUZA eta hasi ABAD bukatuta AZURMENDI
2	10.00	hasi BABARRO bukatuta FANDIÑO
3	12.00	hasi FARIÑAS bukatuta LARRUCEA
4	15.00	hasi LASA bukatuta ORTUZAR
5	17.00	hasi OSA bukatuta SUSO

Izangaien zehaztutako orduan Terminalaren 3. zonan egon beharko dute, une horretan atek irekiko dira. Behin proba hasi ondoren, izangaiak ezingo dira aretoan sartu.

Informazio gehiago behar izanez gero, Osakidetza Giza Baliabideetako Zuzendaritzako Hautaketa Zerbitzura jo dezakezu, telefono hauetara deituz:

• 945 006 004 • 945 006 176 • 945 006 150
www.osakidetza-svs.org.